



4. Jardunbidea | ibiltzen dudana kontaktzen dizut bide bat egiten dut guretzat nire ahotsarekin ibiltzen zara

2019ko Biental SESCen, en Campinasen (Brasilen), esperimentatu genuen jardunbide hau lehenengo aldiz, DENTRO site-specific pieza sortzeko prozesuaren zati gisa. Zenbait espazio zeharkatzean dugun sentikortasuna komunikatzeko modua izan zen. Era berean, ariketa bat izan zen hizkuntzarekin, batzuetan ondoren afinatu ahal izateko materialak eskaintzen zizkiguna.

GONBIDAPENA egonaldian Saldropo eremura (Gorbeia) gerturatu ginen, non bakoitzak aho ibiltze, entzute, begiratze, ukitze, hautatze, kontaktze, grabatze eta pasatze hau praktikatu zuen.

Hona jardunbidea enuntziatu zen modua eta grabatu genituen audioak entzuteko esteka.

PARTITURA/SCORE

- Aldameneko eremuan zehar ibiltzeko denbora hartzea: behatzea, entzutea, imajinatzea, amets egitea.
- Ibilbide bat aukeratzea, horrek sortu liezazkigukuen estimuen arabera. Ibilbideak abiapuntu eta amaiera bat izan beharko du, paisaiaren zati bat edo izango da.
- Mugikorraren grabagailuarekin ibilbide honentzat kontakizun bat sortzea ibilbidea egin bitartean.
- Kide bati ibilbidea non hasten den eta norantz jo beharko duen norabidea adieraztea eta grabaketa luzatzea bera bakarrik esperientzian sar dadin. (aurikularrekin entzun)

Saldropon egindako audio baten [esteka](#) eta mapa:

